

6 mantangorri



LIBURUAK



AZOKA

**Izenburuak:** 'Ura' eta 'Zerua eta espazioa'. **Egileak:** Jean-Baptiste de Panafieu eta Natacha Fradin, hurrenez hurren. **Marrazkiak:** Sophie Lebot. **Bilduma:** Natura Ikertzen. **Orrialde kopurua:** 40na orrialde, koloretan. **Adina:** 5 urtetik gorakoentzat. **Argitaletxea:** Ttartalo.

Bestetik, informazio hori haurren jakin-mina pizten duten hainbat datu bitxirekin uztartzen da, eta eraitza bikaina lortu: liburu interesgarriak eta, aldi berean, entretenigarriak.

**Informazioa modu argian eta zehatzean ematen da, gainera. Testu laburrak eta arinak dira.**

Bilduma honetan azpimarragarria da testuen egileak adituak direla naturaren zientzietan. Horretaz gain, hezkuntzaren munduan ibilitakoak dira; beraz, haurren kuriositatea pizteko eta asetzeko beharrekoak diren baliabideak menperatzen dituzten profesionalek egindako materiala da. Hala, azalpenak emateko, testu laburrak eta esaldi argiak eta simpleak erabilten dira.

**Aurkeztu ere, modu ikusgarrian aurkezten da informazioa.**

Zalantzak gabe, bildumaren itxura bera da liburu hauetan arrakastaren gakoetako bat. Itxura atsegina eta erakargarria dute, eta, horri esker, haarra erraz era-kartzen dute. Testu samurrak irakurri eta argazki eta ilustrazio ederrekin gozatuz, naturaren mundu liluragarrian murgiltzeko gönbita egiten duten liburuak dira.

**Zein da bildumaren helburua?**

Nire ustez, helbuak bat baino gehiago dira: kalitatezko liburuak bitartez, natura hobeto ezagutzea; gizakiok ere naturaren parte bat garela ulertzeara eta barneratzea; eta Lurraren eta unibertsaren baliabideak babesteara eta zaintzearen garrantzia kontzientzia piztea.

**Natura ikertzen jarraitzeko aukera izango dute irakurleek? Beste izenbururik argitaratzeko asmorik baduzue?**

Printzipioz, bai, bildumak jarrai-pena izango du. Bilduma honen barruan hainbat titulu interesgarri daude, eta laster bideratuko ditugu beste bi izenburuen euskara-zko itzulpenak. Urtea bukatu aurretik, eskuragarri egongo dira liburu dendetan.

## Itziar Irastorza

TTARTALO ARGITALETXEKO ARGITARATZAILEA

# «Haurrak askotan egiten dituen galderen erantzunak topatuko ditu»


Naturak uste baino sekretutxo gehiago ezkutatzen ditu barruan. Uraren, zenuaren eta espazioaren eta haien jira eta bueltan gordetzen diren misterioak, informazioak eta bitxikeriak azaleratzen dira Natura Ikertzen bilduman. Erraz eta arin irakurtzen diren testu laburren bidez, eguneroko fenomenoak eta gertaerak argitzen saiatu dira egileak. Marrazki eta argazki ikusgarritz lagunduak datoz azalpen laburrak.

### Naturaren sekretuak erakusten dituen bilduma da, ezta?

Bai, halaxe da. Natura Ikertzen saileko liburuek naturak gordetzen dituen hainbat altxorren berri ematen digute, oso modu didaktikoan, gainera. Istorio baten moduan kontatzeko eta dokumental baten moduan ikusteko liburuak dira.

### Datu ugari ematen dira: terminoen definizioa, eguneroko fenomenoen azalpena...

Informazio asko, aberatsa eta zuzena aurkituko du irakurleak liburu hauetan. Kapitulu edo atal bakotzean, urarekin, zenuarekin eta espazioarekin lotutako oinarrizko da-



tuak eta kontzeptuak azaltzen dira; umeari ingurumena eta naturaren legeak hobeto ulertzeara lagunduko dion informazio baliagarria. Azken batean, haurrek askotan egiten dituen galderen erantzunak topatuko ditu bi liburu hauetan.

### Informazioarekin batera, bitxikeriak, anekdotak eta dato esanguratsuak ere ematen dira.

Bildumaren egileek lortu dute edukiaren itxura eta egitura bizia eta erakargarria izatea. Batetik, ondo dokumentatutako testuak jasotzen dira; gai eta kontzeptuen azalpen zehatzak bezain argiak.

